

## Literatura →

## Errealitatea bihurritzen

Alex Gurrutxaga

Aho gustu gazi-goza utzi dit Bertol Arrietaren bigarren ipuin liburuak. Gozoa, istorio interesgarriak biltzen dituelako. Gazia, kontaerek ez nautilako guztiz ase.

Zortzi ipuin daude Arrietaren liburuan, giza harremanak jorratzen dituzten sei eta literatura ardatz duten bi. Eguneroko bizimoduari begira sortutako ipuinak dira, baina ez horregatik ohiko gauzak kontatzen dituztenak. Izan ere, arrunta denari buelta bat ematen ahalegintzen da Bertol Arrieta, gure ohiko egozuzenari *alter ero* bat bilatzen.

Sortu dituen pertsonaia nagusiak antiheroia dira; jende arrunta da berez, eta bat-batean gertaeraren batek euren mundua iraultzen du. Idazleak berak esan bezala, «gertaera xumeak» dira, baina hala ere, arazoak euren onetik ateratzen ditu pertsonaia. Horiak galduta aurkitzen diren une horretan hasten dira kontuak ezohiko izaten. Arrietak modu finean erabiltzen duen absurdoak nagusitzen da maiz, modu indartsuenean ipuin metaliterarioetan; nahiko modu lortuan *Un*

*tal Ekain* ipuinean, non narrazaile batek Cortazarren semea dela sinetsarazi nahi digun, eta ez hain ongi *Ipuin perfektua*-n, idazle batek horixe bera idazteko ahallegina egiten duenean. Alde horretatik, umorerik ere ez da falta, eta hori ere modu finean lantzen du Bertol Arrieta. Txispa dezenteko momentu txoak daude, esaterako, *Bye* ipuinean.

Bestalde, pertsonaien karakterizazioa sendoa dela esango nuke, alegia, ongi jabetzen garaile pertsonaia nagusiak nolakoak diren. Gustatu zait, gainera, nola jabetzen garen. Arrieta ez da pertsonaia bane mundua kontatzen hasten; askotan, pertsonaia nagusiak euren hitz egiteko eta jokatzeko moduaren bidez ezagutzen ditugu (kontatu baino gehiago, erakutsi egiten zaigu nolakoak diren).

Aipatu beharrekoa da *in medias res* ordena, hainbat ipuinetan oinarrituko egituraren baitago. Pertsonaia aurkezten zaigu lehenbizi; gero, une batean, pertsonaia nagusia pentsaketan hasten da (ile apaindegian eserita, igerrian, eta abar), eta horrela, bigaraiak bateratsu egiten dute aurrrera. Hori egiten du egileak, esa-

terako, *Ordezko atezainaren balada*-n, nire ustez liburuko ipuin onenetakoa. Bertan, orrialde gutxian hiru lagun errusiarren bizimodua modu eraginkorrean kontatzen da.

Gazi puntua kontamolde zenbait utzi dit. Batzuetan, ipuinen mezu nagusia lausoa iruditzen zait, eta horrek erabilitako teknika eta gaiaren artean disonantzia dagoela pentsatzen narama (esaterako, *Ez da zinemazaleentzako herrialdea* ipuin ez oso sinesgarrian mezu nagusi sendorik ez dut harrapatu). Antzeko zerbaitez gertatzen dela esango nuke *Laurak eta hodei* ipuinean ere;



■ **'ALTER ERO'**

- Egilea: Bertol Arrieta.
- Argitaletxea: Susa.

teknikak mezuaren alde ala kontra egiten duen zalantza ditut.

Izan ere, teknika berezi zenbait lantzen ere ahalegindu da Arrieta (aipatutakoaren amaieran, kasurako) eta emaitzek ez naute erabat konbentzitu. Baliatu duen errekurso bat pertsonaia narratiboen aldaketa da (*Ordezko atezainaren balada*-n, adibidez), baina uste dut ez dagoela argi zertarako, eta horrek ipuinen aurka egiten duelakoan nago. Era berean, azken ipuin zinez onaren amaiera irekiak ez duela funtzionatzen esango nuke (bigarren mailako pertsonaia, emaztea, ez baitu irakurleak nahikoa ezagutzen aurreikuspenik egiteko). Topiko zenbait eta esapide ez oso egoki batzuk ere badaude (adibidez, «poz apur bat ekarri dio, keinu arraro batean bilakatu dena» bezalako egiturak, «nopolitarrak grinatsuen bezain odol berokoa» edota «airean hartzen zituen»).

Esan bezala, sentsazio nahasia utzi dit liburuak; bai baina ez, ez baina bai. Azpimarratuko nituzke giza-harremanekin egoki erabilitako umoreaz eta absurdoaz gain, pertsonaia nagusi ongi definituak eta errealitatea bihurritzeko modua.



■ **'DINOSAUROEN HISTORIA ETA ISTORIOAK'**

- Egilea: Alfontso Martinez Lizardukoa eta Joan Ignazio Abrisketa.
- Argitaletxea: Gaiak.

Dinosauroei buruz egindako ikerketen berri ematen du *Dinosauroen historia eta istorioak* liburuak. Hainbat ereduren bidez, dinosauroek mundu biziduna menderatu zuten garai garrantzitsuenen nondik norakoak zehazten saiatu dira egileak.



■ **'KRIMENAK'**

- Egilea: Ferdinand von Schirach.
- Itzultzailea: Anton Garikano.
- Argitaletxea: Erein.

Jurista arrakastatsua bat da liburua idazlea. Bere lan esperientzian dute oinarria liburu narrazioek. Inoren susmorik pizten ez duten arren krimen berritza eta gordinak egiten dituzten pertsonaia ezagutuko dituzte irakurleak. Liburu asko saldu da Alemanian.



■ **'ILNORDUAK ETA ARGILAUDENAK'**

- Egilea: Joxantonio Ormazabal.
- Argitaratzailea: Atenea.

Joxantonio Ormazabalek 2007an kaleratu zuen haurrentzako poema liburu hau. Madrilgo Atenea Hizkuntzalari-tza Aplikatu Zentroak berrargitaratu du orain, Juan Kruz Igerabideren hitzaurreekin eta Jose Luis Padronek egindako gaztelaniazko itzulpenarekin.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Nerabe ero hauek?!

Imanol Mercero

Eleberria izateko neurri juxtua duen narrazioarekin etorri zaigu orainoan Juan Kruz Igerabide. Euskal Herriaren kokatua, gure etxeko atarian bertan gerta litekeen kontaketa eskaini digu.

Eleberri honetan, egun guztiak ez dira igualak, telebistak mar mar bera du, baina ezer ez da atzo bezalako. Gurasoen hausturaren ondoren, aitzak beste harreman bati ekingo ote dion beldur da Igor, protagonista. Arrebak gaizki hartu bide zuen gurasoena, zeren lehen txolin eta parrandazalea zenak orain amaorde batek baino estuago jokatzen du Igorrekin. Aita lur jota dago, lan ezin kaskarragoan etsipenak itota, Igorrek behar duen arreta eskaini gabe. Eta Igor, etxeko txikia, nerabezaroak dakarren eraldaketa gobernatzen saiatzen da, iraganari saminez begiratzen, aldaketekin gustura ez. Mutiko lotsatia da, hitz gutxikoa eta ahots itsusikoa,

esan nahi duena bost minutu beranduago ahoratzen duena. Ez, ordea, koldarra. Heroiaren arketiko klasikoak bete-betean irudikatzen duena izaki, ausarta eta kementsua da une erabakigarrietan, eta hautu zuzenak hartzen dakiela erakusten du atakarik zailenean ere. Baina nerabea da, eta ezin du jasan bere inguruan gertatzen dena. Bere bihotz-begietan dena dago oker: amaren desagerpena ezin jasaneko mina da, zauri irekia, ihes ulertezina. Aitaren etsipena zama handia da, amaren abandonuaren parekoa ia. Kalean, makurkeria eta droga edonon dago, nerabeen artean batak bat. Jokabide okerreko jendeak gobernatzen du euren arteko, eta dena zikintzen du, adiskidetasuna, parranda, sexua. Badaude, beharrik ere, salbuespenak, arnasa ematen dioten harremanak. Bizilagunen bat, arrebaren jarra gogorren atzean dagoen maitasuna, aitaren presentzia.

Lau ardatzen inguruan mugitzen zaigu kontaketa, nerabeza-

roan dauden gaztetxoaren erretratu eginez. Batetik, familia dago, liskartsua eta elkarbizitza zailakoa, ulertu ezin maitasunarekin konpontzen. Bestetik, nerabeen mundu aldakorra dago, indar ezezagunek gobernatua, basatia eta gordina, ezatsegina askotan, erakargarria denaren gainetik. Parez pare, higuraren, betiko harremanak daude, harreman zintzoak gure eleberrian, *Tripa-zorro* deitzen dioten mutiko batek eta bere familiak haragi-mamitzen dutena. Azkenik, protagonis-



■ **'MOTOA'**

- Egilea: Juan Kruz Igerabide.
- Argitaletxea: Alberdania.

taren barne mundua dugu, bere ezaugarri propioekin, motoan ibiltzeak ematen dion askatasunarekin, nortasunak eskaintzen dizkion dohain eta mugekin.

Nire iritziz, eleberri interesgarria eta gomendagarria izanagatik ere, nerabeen mundua gehiegi itsustu du Igerabide, gazteen bizimoldea karikatuta bihurtzeko arriskuan jarritik. Asteburuetan zerbezak edan edota porroak erretzea bizi-galbidearen pareko jartzea gehiegizko iruditzen zait. Horren aurrean irtenbidea kirol eta naturazalea den bizimodua dela aldarrikatzen digu, baina, tamalez, bi joerak bateragarriak ez balira bezala aurkeztuaz, dikotomia manikeoa erakitzen du.

Baina, beno, esanak esan, abiliiaz erakitako narrazio gomendagarria da, nire ustez urteko emaitzarik onenetakoa. Aurkezpenean, Alberdaniako editore Inazio Mujika Iraolak zera zioen: «Ez da arina gaia, ez da arina kontatzen duena, baina arin doa irakurketa, moto gainean bezala...».